

2018KO URRIAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2018ko urriaren 25ean, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV).
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)

BAKIOBAI taldeko zinegotzi hau ez da bertaratu: ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2018KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2018ko irailaren 27an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON ETA 304/2018 DEKRETUA BERRONETSI.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

274/2018.- *Fakturen obligazinoak onartzea.*

275/2018.- *Obligazinoen ordainketa onartzea.*

276/2018.- *Andra Mari eguneko laguntza.*

277/2018.- *Folk jaialdiaren laguntza.*

278/2018.- *Diziplina urbanistikoko espedienteari hasikerea emotea.*

279/2018.- *Bitarteko funtzionario baten izendapena luzatzeko ebazpena.*

280/2018.- *Obligazioen ordainketa onartzea.*

281/2018.- *Nominak ordaintzeko ebazpena.*

282/2018.- *Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena.*

282bis/2018.- *Fakturak bertan behera ixteko eta barriak onartzeko ebazpena.*

283/2018.- *Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena.*

284/2018.- *Errenteria Bidearen alboko ezponda egonkortzeko obrei buruzko proiektua onartzea.*

285/2018.- *Obligazioen ordainketa onartzea.*

286/2018.- *Baso aprobetxamendurako kontratazino espedientea onartzea.*

287/2018.- *Finka zatitzeko onarpena.*

288/2018.- *Komunidade batean ate bat iminteko eskaerari uko egitea.*

289/2018.- *Obra hondakinen kudeaketa bermatzeko fidantza itzultzea.*

290/2018.- *Obra hondakinen kudeaketa bermatzeko fidantza itzultzea.*

291/2018.- *Obligazioen ordainketa onartzea.*

292/2018.- Aurreko ekitaldietan onartutako eskubideen hasikerako saldoa aldarazoteko/ezeztatzeke espedienteari ekiteko ebazpena.

293/2018.- Akatsez hartutako betebeharren ezeztapena egiteko espedientea hastea.

294/2018.- Kredituak aldarazoteko espedientea onestea.

295/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea

296/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

297/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

298/2018.- Etxea lehenengoz okupatzeko lizentzia emotea.

299/2018.- BiskayTIK Proiektuaren esparruan (Bitartekaritza Elektronikoko Sistema) zerbitzu jakinak jasoteko, BiskayTIK eta Bakioko Udalak sinatu beharreko Hitzarmena Espezifikoa onartzea.

300/2018.- Pertsona baten ofiziozko bajaren espedienteari jagokon prozedurari ekitea.

301/2018.- Espediente bat hastea pertsona batzuei Eiztanleen Udal Erroldan baja emoteko.

302/2018.- Zerga itzulketak onartzeko ebazpena.

303/2018.- Bakioko Udalak eta Andra Mari Parrokiaren artean migratzaileei artapena emateko sinatutako hitzarmena onartzea.

304/2018.- Bakioko Udalak eta BIZKAIKO ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK elkarareen izenean migratzaileei artapena emateko sinatutako hitzarmena onartzea.

305/2018.- Kredituak aldarazoteko ebazpena.

Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

294/2018 dekretua:

**KREDITUAK GAITZEKO PROPOSAMENA
KREDITUAK GAITZEKO ESPEDIENTEA OSATZEN DUTEN SARRERA
KONTZEPTUAK ETA GASTU PARTIDAK**

Sarreraren egoera

Kredituen gaikuntza finantzatzen duten sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
41002	Gob Vasco Lanbide	0,00 €	16.136,23 €	16.136,23 €
41001	Gob Vas-emakunde bardintasuna	0,00 €	7.132,50 €	7.132,50 €
71003	lhobe Berringurune (Marisma)	0,00 €	25.000,00 €	25.000,00 €
78001	Transf. Capital de familias	17.021,81 €	539,42 €	17.561,23 €
		17.021,81 €	48.808,15 €	65.829,96 €

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek honako aurrekontu partidei eragiten diete:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
920.131.00.00	CONTRATACIONES TEMPORALES	80.000,00 €	16.136,23 €	96.136,23 €
333.226.06.11	Kultur etxeako ekintzak	73.350,00 €	7.132,50 €	80.482,50 €
1532.601.00.05	Lafitako malda	17.021,81 €	539,42 €	17.561,23 €
151.642.00.01	Marisma berrezkuratzeko plana	0,00 €	25.000,00 €	25.000,00 €
		170.371,81 €	48.808,15 €	219.179,96 €

299/2018 dekretua

Agiri hauek aztertu dira:

- Udalak BiskayTIK Sistema Informatiboa osatzen duten zerbitzu jakin batzuk jasotzeko, BiskayTIK-ekin sinatu behar den Hitzarmena; izan be, hitzarmenak Udala Datuei Bitartekaritza Sistemaren Zerbitzura atxikitzea du helburu BiskayTIK Proiektuaren esparruan.
- Datuak modu elektronikoan trukatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bakioko Udalaren arteko hitzarmena.

303/2018 dekretua:

KLAUSULAK

- Parrokiak Uribarriko Bidea kalearen 4. zenbakian duen etxebizitza Bakioko Udalari 2019ko martxoaren 30era arte lagako dio sortu daitezkeen urgentziatzko gizarte premien aurrean erabili ahal izateko.
- Kontutan izanda, etxebizitza gizarte ekintzetarako erabiliko dela, ez da alokairu preziorik ordaindu beharko.

304/2018 dekretua:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

- Bakioko Udalbatzak Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazten du, baita beste udaletxe batzuekin elkarlanean aritzeko konpromisoa ere.
- Europar Batasunari krisi humanitario honi modu aktiboan eta elkartasunez eta justizia humanitarioaz erantzuteko eskatzen diegu bertako estatukideetako agintari eta gobernuei. Gerra hauetatik ihes egiten duten edo tragedia hau aprobetxatzen duten mafien biktima diren pertsonen harrera egiteko beharrezko bitartekoak ere bidera ditzatela eskatzen diegu.
- Bakioko Udalak Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru aldundiarekin eta Euskal Herriko beste udal batzuekin lan egiteko konpromisoa hartzeaz gain, errefuxiatuak laguntzeko baliabideak jartzeko konpromisoa hartzen dugu”.

KLAUSULAK

- Bakioko Udalak Uribarriko Bidea 4. zenbakian dagoen etxebizitzaren kudeaketa eta ardura lagako dio 2019ko martxoaren 30era arte.
- Ongi etorri errefuxiatuak erabilera honen denboran eta ondorioz pisuan sor litezkeen kalte materialen ardura izango du. Hasierako eguneko etxebizitzaren egoera frogatzeko argazkiak eransten dira hitzarmen honetan, erabilera amaitutakoan frogatzeko kalte materialik ote dagoen.
- Hitzarmen hau gizarte ekintza barnean egiten dela kontuan hartuz, ez da alokairu preziorik ordaindu beharko.

305/2018 dekretua:

MODALITATEA: KREDITU GEHIGARRIAK

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
459.601.00.07	Parking autocaravanas Benta	0,00 €	21.598,50 €	21.598,50 €
		GUZTIRA	21.598,50 €	

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO ERABAKIA

Partiden kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	
----------------------	--------------------------	--

870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko ezarpena (2017ko ekitaldiko diruzaintzako gerakina)	21.598,50€
--------	---	------------

Azkenik, Uribarriko Bidea 4. zenbakian dagoen etxebizitzaren kudeaketa eta arduraren, *Ongi etorri errefuxiatuak* alkarteari 2019ko martxoaren 30era arte lagatzeko, horrek eta udalak sinatutako hitzarmena onartzen dauan 304/2018 dekretua berronestearen erabagidau aho batez Udalaren osoko bilkurak.

3.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN ALDARAZPENAREN 13. ESPEDIENTEA ONARTU, KREDITU GEHIGARRIAREN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Ametz Jauregizar alkate andreak, aldarazpenaren nondik norakoa azaldu dau, espedientearen edukia hauexek izanik:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
459.601.00.01	Ibarratorre kalearen urbanizazioa	0,00 €	223.867,78 €	223.867,78 €
011.933.00.01	AMORTIZACION PRESTAMOS PROVEEDORES 2012	240.758,98 €	176.895,78 €	417.654,76 €
		GUZTIRA	400.763,56 €	

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Partiden kontzeptua	Baliabidearen kontzeptua	
870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko ezarpena (2017ko ekitaldiko diruzaintzako gerakina)	400.763,56 €

Ametz Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horri buruzko azalpenak emon dauzan ezkeron, bai eta informazio batzordean aztertu dan ezkeron be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2018 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 13. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu gehigarriaren modalidadean.**

4.- UDAL KIROLDEGIAREN ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA USTIAPENA DALA ETA, U.T.E. BAKIO KIROLA-K 2017.11.16AN ETA 2018.06.18AN AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZINO EKONOMIKOARI BURUZKO IDATZIEN GANEKO ERABAGIA HARTU.

1.- 2016ko abenduaren 29an udalbatzak honako erabagi hau hartu eban: “Kirol jardueren planifikazioagaz eta garapenagaz, udalaren kirol instalazioetara sartzeko kontrolagaz eta bertan egingo diran prestakuntza ikastaroen kudeaketa osoagaz

zerikusia daukan zerbitzuaren kontratazioa eta prestazioa “BI SPORT 2.011, S.L.” eta “KONECTIA SERVICIOS INTEGRALES S. L.” enpresek osotutako “U.T.E. BAKIO KIROLA” aldi baterako enpresen alkarteari esleitzea urte baterako, enpresa horrek urteko 16.275 euroko (BEZa barik) kanona ordaindu behar dauala kontuan hartuz; hori guztiori klausula administratibo berezien agiriaren, baldintza teknikoen agiriaren eta lizitatuak aurkeztutako dokumentazioaren arabera”.

2.- “U.T.E. BAKIO KIROLA” aldi baterako enpresen alkarreak eta Bakioko Udalak 2017ko urtarrilaren 23an sinatu eben adjudikazio horren kontratua.

Zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu horren iraupena urtebetekoa zan. Adjudikaziodunak, administrazio klausulen agiriaren arabera, kontratuaren prestazio/ustiapenari ekin behar eutsen gehienez be 30 egun naturaleko epean, beti be kontratua izenpetzen zan biharamunetik zenbatzen hasita; halanda ze, kontratuari 2017ko urtarrilaren 1ean emon jakon hasikerea, eta egun horretatik aurrera hasi zen zenbatzen urtebeteko burutzapen epea.

3.- JON LOIZAGA CAYERO jaunak, “U.T.E. BAKIO KIROLA”-ren izenean, 2017ko zemendiaren 16an (sarrera erregistroa, 2054.a) idatzi bat aurkeztu eta bertan honakoa adierazoten eban: Lanbidek prestakuntza ikastaroak finantzatzeko emondako laguntza ekonomikoak lortu ez ziran lez, hori kontratuaren prestazioaren jardueran desfase ekonomikoaren arrazoa zala, gastu gehiago sortu ziralako sarrerak baino; izan be, laguntza ekonomiko horreek funtsezkoak ziran, kontratuaren prestazioari zelanbaiteko errentagarritasuna atarateko, eta horreek udalak izapidetu eta lortu ebazan. Beraz, zerbitzuaren jarraitutasuna ziurtatzeko alternatiba bideragarri bakarra honakoa da: udalak enpresari zenbateko bat emotea zerbitzuaren ustiapenaren ondoriozko gitxieneko errentagarritasuna ziurtatuko deusona.

U.T.E. BAKIO KIROLA kontzesinodunak 138.592,90 euroan baloratu dau 2017ko irailaren 30era arte emon beharreko kopurua.

Zehatzago, 2017ko zemendiaren 16ko laugarren atalean honakoa adierazoten dau berbarik berba:

“Que hasta el momento el Ayuntamiento de Bakio ha sido el encargado de tramitar y obtener los ingresos correspondientes a las acciones de formación, ingresos que provenían de unas ayudas otorgadas por Lanbide orientadas al ámbito deportivo y que eran adjudicadas al base al cumplimiento de ciertos requisitos por parte las administraciones públicas y la empresa encargada de llevarlas a cabo. Sin embargo, en el presente ejercicio económico, por diversas causas, el Ayuntamiento de Bakio no ha sido beneficiaria de dichas ayudas lo cual se traduce en la imposibilidad de hacer frente al sustento de actividades deportivas y formativas que viene ofreciendo el Ayuntamiento, ya que, como ha quedado acreditado en el expositivo anterior, la falta de dicho ingreso supone una innegable ruptura del equilibrio económico.....”.

4.- Udal idazkariak 2017ko zemendiaren 27an txostena egin eban eta, horren ostean, alkate andreak UTE BAKIO KIROLARI eskatu eutsan, justifikazino agiriak eta gastuak aurkezteko.

5.- 2018ko zezeilaren 26an U.T.E. BAKIO KIROLAK Udalari dokumentazinoa bialdu eutsan eta agiri horreetan kiroldegia kudeatzeko gastu eta sarreraren erreferentzia azaltzen zan.

6.- 2018ko bagilaren 18an U.T.E. BAKIO KIROLAK idatziz iragarri eban 2018ko garagarrilaren 17an itxiko eutsola zerbitzua emoteari eta udalari eskatzen eutsozan 2017ko zemendiaren 16ko idatzian aitaturako zenbatekoak (zerbitzuaren prestazinoaren jarraipenak), beti be oreka ekonomikoa berrezartzeko.

7.- Udal aholkulari juridikoak 2018ko irailaren 27ko txotena prestatu eban.

2018.09.27ko txosten horretan azaltzen da Udalak ez ebazala izapidetu Lanbidek aurreko urteetan emondako laguntzak, baina U.T.E. BAKIO KIROLAK ez eban eskaerarik aurkeztu Lanbidek emon beharreko laguntzen eskatzailea izan behar zala jakitun egonik be, eta ez eban egin Lanbidek 2017an argitaraturako hiru deialdietatik bakar batean be: deialdi bi langabetuentzako prestakuntza ekintzak egitera lehentasunez bideratuak 82/2016 dekretuaren markoan eta beste bat langile okupatuei eta enplegua lortzeko zailtasunak eukiezan langabeei zuzendutako proiektu bereziak garatzera bideratua.

Udal aholkularitza juridikoaren txosten horretan jasoten dan lez, gertaerak ikusita, Udalak ez eban jarduketarik aurrera eroan, merkatuaren funtsezko hausturarik ekarri ebanik; hori dala eta, ez da gertatzen legean ezarrirako egoera bakar bat be, Udalak kontratuaren finantza oreka ekonomikoa berrezartzeko, eta, beraz, ez jagoko U.T.E. BAKIO KIROLARI ordaintzea ezelako kantitaterik ez eta interesik be, oreka ekonomikoaren berrezarpenaren kontzeptupean.

8.- 2018ko irailaren 27ko txosten hori ikusita, udal idazkariak 2018ko urriaren 16ko txostena egin eban.

Korporazinoko kideak hemen zehaztutako dokumentazinoaren jakinaren ganean egonik eta 2018.09.27 eta 2018.10.16ko txostenetan ezarrirakoa kontuan harturik, udalbatzak honako erabagi hau hartu dau EHBilduren aldeko lau botoakaz (Ametz Jauregizar, Maria Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta BakioBai taldeko beste zinegotziaren aldeo botoagaz, eta kontrako boto barik:

U.T.E. BAKIO KIROLAK 2017ko zemendiaren 16ko eta 2018ko bagilaren 18ko idatzien bidez 2017.01.23ko kontratu administratiboaren oreka ekonomiko eta finantzarioa berrezartzeko egindako ordainketa erreklazinoa ezestea.

Batzarrean dagozan EAJ-PNV taldeko zinegotziak (Aitor Apraiz, Maria Begoña Abio, José Antonio Abio eta José Luis Urrutia) abstenidu egin dira, kiroldegia kontzesinoa dala-eta orain arte izan daben jarreragaz bat etorriz.

5.- 2017-2018 IKASTURTEAN EUSKERA IKASTEAGATIK DIRULAGUNTZAK BANATZEA ERABAGI.

Amets Jauregizar alkate andreak, dino, horren harira, Bakioko Udaleko euskera teknikariak egindako txostena kontuan hartu beharrekoa dala, horren edukia hauxe izanik:

“Bakioko Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 31n egindako osoko bilkuran, onetsi zuen euskara 2017-2018ko ikasturtean ikastegatiko diru-laguntzen deialdia.

Deialdian 2018ko urriaren 1era arteko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko. Gauzak horrela, epemuga horretara arte 9 eskabide aurkeztu ziren.

Era berean, deialdian honako baldintza orokor hauek ere zehaztu ziren, diru-laguntza eman ahal izateko: Bakion erroldaturik egotea eta gutxienez %75etik gorako asistentzia egiaztatzea.

Bestalde, egindako ikastaroetan aprobetxamendu egokia ziurtatu beharra zegoen eta hori guztia euskaltegiaren ziurtagiri bidez egiaztatatu.

Baldintza horiek beteta, matrikularen % 30 lagunduko zen diruz. Hala ere, eskatzaileei gehienez eman zekizkiekeen diru-laguntzen kopurua 95 eurokoa izango zela finkatu zen.

Halaber, Bakioko Udalak 2.000 euroko diru-zainpeketa onartu zuen udal aurrekontuan xede horretarako berariaz finkatuko partidan, laguntzak eman ahal izateko.

Horrenbestez, eskabideak 9 izan direnez, aurrekontuan gehienez ere betearazi beharko litzatekeen diru kopurua honakoa da: 855 euro (95 euro bider 9 eskabide).

Espedientean jasotakoari jarraikiz, aurkeztutako eskabide guztiak beharrezko epearen barruan jaso dira, guztiak betetzen dituzte asistentziari eta aprobetxamenduari dagozkien baldintzak eta matrikula guztiak 95 euroko laguntza jasotzeko beharrezko 316,66 euroko diru-kopurua gaintzen dute, batek izan ezik (270 €ko matrikula).

Gauzak horrela, udalbatzak 2018ko maiatzaren 31n egindako osoko bilkuran onartutako deialdiari jarraikiz, zortzi interesdunek 95 euroko laguntza jasotzeko eskubidea dute eta 270 euro ordaindutako bederatzigarren interesdunak 81,00 euro.

Beraz, organo eskudunari proposatzen zaio interesdunei diru-laguntza jasotzeko beharrezko ebazpena hartzea, zortzi eskaera-egilek 95 euroko laguntza jaso dezaten eta bederatzigarrenak 81,00koa, betiere txosten honen eranskinean agertzen denarekin bat.”

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- 2017-2018ko ikasturtean euskara ikasteagaitiko diru-laguntzak jasoteko aurkeztutako zazpi eskatzaileen eskabideak ontzat emotea eta, beraz, seiri 95,00 euroko diru-laguntza emotea eta zazpigarren eskatzaileari 73,20 euro.

2.- Atal ekonomikoari agintzea eskatzaile bakotxari jagokon diru-laguntza emoteko.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

José Antonio Abio zinegotziak galdetu dau ea TAO zerbitzuaren likidazioa jaso dan. Era berean, eskatu dau TAO zerbitzu kontratu barri bat tramitatzen hastea, indarrean dagoana datorren urtean amaitzen dalako.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso Ogasun Informazio Batzordean azalduko dala TAOren likidazioa. Beste aldetik adierazo dau mugikortasunari buruzko txostena jasoten dabenean, TAO zerbitzuaren ezarpenaren ganean hartuko dala erabagia.

Begoña Abio zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean hauxe adierazo dau: Udalbatzak, 2018.07.26an egindako bileran, konpromiso hau hartu ebalu: 2018. urtea amaitu baino lehen egitea txostena honeri buruz: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016ko Legearen VI. tituluaren aurreikuspenak eta bereziki bere II. kapituluan txertatuta dagozan 50. artikulua eta hurrengoetan jasotakoari buruzkoa.

Beraz, zinegotzi horrek galdetu dau erabagi hori beteteko beharren egoerea.

Alkate andreak dinotso azkeneko bileran alderdi bakotxak enpresaren baten proposamena aurkezteko geratu zirala, eta bere aldetik, daborduko, EHUko zientzia politika sailagaz hartu-emonetan imini da, pentsaten dogulako sail hori egokiena izan daitekela erispideak eta jarraibideak ezartzeko orduan.

Begoña Abio zinegotziak dino be eurak be zeregin horretarako badabiltzazela kontsultak egiten enpresakaz.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 20:15ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria